

KORONABIRUSA

**EGUNEROKOTASUNA
KOLOKAN JARRI
DUEN GAITZA**



A2



**Antxeta
Irratia,
hegoak zabalik
Euskal Herri
osora**

Donostia 105.8 Mhz | Bilbo 91.4 Mhz
Gasteiz 90.4 Mhz | Iruña 106.70 Mhz



ALEA 230

2020-03-13 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:
MIKEL BURUAGA

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Koronabirusa Araban.
- 14 **Iritzia.** Txema Ramirez de la Piscina, 'Iparragirre, gurean'.
- 15 **Iritzia.** Cira Crespo, 'Ametsak'.
- 16 **Gutuna.** 'Olarizu eta giza eskubideak'.
- 18 **Irudia.** Martxoak 8.
- 20 **Politika.** Trebiñuk galdeketa 22. urteurrena ospatu du.
- 21 **Ekonomia.** Zorroako istripua estaltzea salatu du LABek.
- 22 **Kultura.** Aitor Esteban: "Egoera txarra bizi du lakotak, baina itxaropentsua".
- 24 **Kultura.** Alberto Schommerren erakusketa zabalik da.
- 25 **Kultura.** Zurrumbiloba jaialdiaren bosgarren edizioa, ate joka.
- 26 **Gure Bazterrak.** Kuartangoko trikuharriak.
- 28 **Denbora-pasak.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Mikel Buruaga

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Antonio de Sucre 1, behe

01003 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Txema Ramirez de la Piscina, Cira Crespo, Beñat Garaio.

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Koronabirusari hesia jartzeko ahaleginetan

Covid-19 gaitzaren zabalpena geldiarazteko helburuarekin, lehendabiziko neurriak hartu ditu Eusko Jaurlaritzak aste honetan; Gasteizko ikastetxe guztietako eskolak eten eta lagun ugari bildu daitezkeen gunetan bertan behera geratu dira jarduerak datozen hamabost egunetarako.


Testua: **Erredakzioa**

I ragan abenduaren 19an detektatu zuten lehendabizikoz Txinako Wuhan herrian, eta dagoeneko etxean da Covid-19 gaitza. Asteazkena bitartean, ALEA inprentara bidali orduko, hiru lagun hil eta 200 kutsatu baino gehiago izan dira Araban. Arrazoi horregatik, abian dira birusaren zabalpenari eusteko salbuespenezko neurriak; jendearen joan-etorriak murriztu eta lagun ugari elkartzen diren gunek ixteko erabakiak indarrean dira.

Koronabirusak hurrengo egunetan egingo duen bideari so, eta etor daitezkeen neurri berrien zain, eguneroko bizimoduan eragiten ari da gaitza ezbaierik gabe. Haurrak eskolarik gabe eta non, edo norekin, utzi jakin gabe geratu dira familia asko, eta bestetik aisialdiarekin lotutako ekintza gehienak ere bertan behera geratu dira dagoeneko. Gasteizen ez ezik, inguruko beste udalerri batzuetan ere neurri antzekoak hartzen hasiak dira gobernu talde ezberdinak.

Neurriak hartzen azkenak, jarduera ekonomikoarekin kezkatuta dauden enpresaburuak izango dira seguruenik. Oraindik zaila da aurreikustea birusak bertako ekonomian izan dezakeen eragina, baina mundu mailan lehen alerta hotsak entzuten hasiak dira dagoeneko. Oraingoz, Batzar Nagusiak bezalako instituzioek eguneroko jarduna bertan behera uztea erabaki dute, eta beste enpresa asko lan telematikoa egiteko neurriak hartzen hasiak dira dagoeneko.

Oraingoz, ziurra den gauza bakarra salbuespen egoera, gutxienez, bi astez luzatuko dela da; hori baita birusak garatzeko



behar duen denbora tarte eta adituek ezarritako segurtasun epe minimoa. Halere, beste herrialdeetan izandako bilakaera aintzat hartuta, datozen egunotan kutsatutako gaixoen kasu kopuruak gora egiten jarraituko duela aurreikusten dute osasun arloko adituek.

Gaitza, berez, ez da oso larria eragin ditzakeen hildako kopuruari dagokionez. Adituek %2-3 inguruan kokatzen dute kopuru hori, eta adinekoen edota alde zaurerik gaixotasun kronikoak pairatzen dituzten lagunengan du eragina batez ere.

Baina, beste gaixotasun batzuekin alderatuta, Covid-19 birusak baditu zenbait berezitasun; eta horrek eragiten du kezka gehien. Hasteko, ezezaguna da. Ikerlariek ez dakite ondo zein izan daitekeen bere bilakaera eta oraindik ez dute azterketa nahikorik egiteko denborarik izan. Eta bigarrenaz, ohiko birusak baino askoz kutsakorragoa da, eta horregatik zabalkundeari ateak jartzea benetan zaila ari da izaten.

Aditu guztiek aho batez errepikatutako mezua lasaitasuna mantentzeko deia izan da. Prebentzio neurri egokiak hartu eta kutsadura gune izan daitezkeen ekintza eta espazio jendetsuak ekiditea ondo dago, baina izuaren menpe jausi gabe. Egunotan sakelekoan edota sare sozialen bidez bor-bor zabaltzen ari diren alarma mezu, albiste faltsu eta zurrumurruek, mesede gutxi egiten diote gizartean pixkanaka hedatzen ari den psikosi kolektibo horri.

Denborak esango digu hartutako neurriak nahikoa izan diren gaitzari hesia jartzeko, edota egoerak onera egiten ez badu, beste modu batean jokatu beharra izango ote den. ■■■

Covid-19 birusa. ALISSA ECKERT_MS_DAN
HIGGINS_MAM





ALEA

Hezkuntza zentroak

Astelehen goizeko lehen orduan jakin zen koronabirusak kutsatutako kasuen eraginez Bastidako zentroek eta Odon de Apraiz ikastolak klaseak bertan behera utzi behar zituztela. Ordu gutxiren buruan, presazko bilera batera dei egin zituzten zentroetako zuzendariak, eta eguerdirako jakina zen Gasteiz, Bastida eta Guardiako hezkuntza zentro guztiek hamabost egunez beren ohiko jarduna eten behar zutela. Neurri bera hartu dute Arabako Unibertsitateko Campusak, Arkautiko Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak eta Gasteizko Udalaren menpeko haurreskolek, Luis Aranburu musika eskolak, Folklore akademiak, Dantza kontserbatorioak eta Arte eta Lanbide eskolak.



ALEA

Kirol eta kultura jarduerak

Koronabirusak kutsatutako kasuen hedapena murrizte aldera, Gasteizko Udalak salbuespen neurriak hartu ditu eta asteartetik aurrera itxita utzi ditu liburutegiak, igerilekuak, ariketa gelak, kirol kantxak eta beste hainbat zerbitzu. Udal jarduerai eragiten die neurriak, baina baita euren entrenamendu, solasaldi edo bileretarako instalazio horiek erabiltzen dituzten klub eta taldeei ere; jarduera horiek etenda geratuko dira martxoaren 23ra arte. Udalak, gainera, Antzoki Sarearen jardura ere eten du martxoaren 11tik aurrera. Gasteiz inguruko beste zenbait udalerri, Legutiok, Iruña Okak eta Arratzua-Ubarrundiak esaterako, antzeko neurriak hartu dituzte kultur-etxeak edota kiroldegia itxiz.



GOOGLE MAPS

Zahar-egoitzak eta adinekoen zentroak

San Martin auzoan kokatuta dagoen, eta Sanitas enpresak kudeatzen duen, zahar-egoitza iragan asteburuan jarri zuen Jaurialitzako Osasun Sailak berrogeialdi egoeran bertako 22 egoilar eta 4 langilek Koronabirusagatik positiboa eman eta gero. Lurraldeko beste zahar-egoitzetan ere neurri bereziak ezarri dira egunotan adinekoen arrisku taldeak jasan ditzakeen kalteak apaldu nahirik. Horrenbestez, zahar egoitzetan bisitak mugatu eta sartu-irtenaldiak kontrolpean burutzen ari dira, ezohiko neurriak ezarri dira kasu askotan. Horrekin batera, Gasteizko Udalak kudeatzen dituen Adinekoentzako zentroen sareak ere bere zentroak itxi eta jarduerak eten egin ditu.



BASKETARABA.COM

Kirol ikuskizunak

Kirol profesionaleko partidak ikusteko publikorik gabe geratu dira Mendizorrotxa eta Buesa Arena datozen partidetan, Kultura eta Kirol Ministerioak lehiaketa guztiak ateak itxita jokatzeak agindua eman baitu datozen 15 egunetan zehar. Horrek publiko gehien mugitzen duten Alaves eta Baskoniari eragiten die batik bat, baina baita Araski edo Gaztedi bezalako taldeei ere. Horrekin batera, Araba oinarritzko kirol lehiaketarik gabe geratu da. Arabako futbol eta saskibalo federazioak izan ziren lehenak afizionatu mailako partidak bertan behera utzi dituztela jakinarazten eta ondoren etorri dira beste batzuk ere. Eskola kirol jarduerak ere eten egin dituzte.



ALEA

Zaballako presondegia

Zaballako espetxeko preso batek positibo eman zuen iragan asteazkenean, kutsatutako ertzain batekin harreman zuzena izan ostean. Koronabirusak kutsatutako lehen presoak izan da Espainiako Estatuan. Presoak harremana izan zuen Gasteizko Txagorritxu ospitalean zaintza lanetan ari zen ertzainarekin. Beste preso batekin isolamendu prebentiboan jarri zuten Arabako espetxeko erizaindegian eta asteburuan hasi zen sukarra bezalako lehen sintomak agertzen; positiboa eman ostean isolatuta dago orain. Gainera Espetxe Erakundeetako Idazkaritza Nagusiak Madril, Araba eta Errioxako espetxeetarako sarbideak murrizteko jarraibideak bidali ditu asteartean, koronabirusa geldiarazteko prebentzio neurri gisa.



GASTEIZKO UDALA

Garraioak

Garraio publikoari dagokionez, Tuvisako langileek beren haserrearen adierazi dute hartutako neurriekin, desinfektatzeko eskuetako gela jarri eta oinarritzko protokoloa jarraitzea bakarrik gomendatu baitiote. Udalak, bere aldetik, autobus eta tranbia lineatan garbitasun neurri bereziak hartzeko agindua eman du. Bestalde, atzerrira egindako bidaien kasuan, eta bereziki Forondako hegaldien artean, Bergamora hegaldi linea ere etenda dago datorren martxoaren 25a arte, Ministerioak Italiara doazen hegaldi guztiak gelditzeko agindua eman ondoren. Atzerrira joateko asmoa dutenek, gainera, jakin behar dute zenbait herrialdek Espainiako estatutik egiten diren hegaldiei eragiten dieten neurriak hartzen hasiak direla.

"Eta orain zer egingo dugu umeekin?"

Martxoaren 9tik, Gasteizko 70 eskola, haur-eskola, institutu eta fakultateez gain, Arabako Errioxako hiru ikastetxek ere eten dute eskola jardura: Bastidako bi ikastetxeak eta Guardiako institutua. Egoera honek familiengan izan duen eraginaz hitz egin dugu Ixi Mateosekin (Beasain, 1983).

Gaixotasunaren eragina gutxien jasan arren, transmisio uhal arriskutsutzat jotzen dira haurrak, nerabeak eta gazteak. Arabako 60.000 ikasle inguru klasera joan gabe egongo dira, oraingoz, martxoaren 24ra arte, koronabirusa geldiarazteko ahaleaginean Eusko Jaurlaritzak agindutako prebentzio neurrien ondorioz.

Bastidako zentroen berriaren ostean, berehala iritsi zen Gasteizko lehen kasua: Zaramaga auzoko Odon de Apraiz ikastolara 09:30ean sartu behar ziren ikasleek ez zuten eskolarik izango astelehenetik aurrera, bi irakasle koronabirusarekin kutsatu zirelako.

"Badirudi goizeko lehen orduan mezuak iritsi zirela telefonora, baina ni ez nintzen enteratu", azaldu du bere bi alabak Odon de Apraiz ikastolara eramaten dituen Ixi Mateosek: "Gurasoak normalean baino mugituago ikusi nituen, telefonoari begira... eta harritu nintzen".

Eskolara iritsi zirenean atea itxita topatu zuten, baina ez zegoen inolako oharrik. Dena whatsapp bidez jakin zutela azaldu du Mateosek, eta



Egun hauetako irudirik ohikoena Gasteizko parkeetan. MIKEL BURUAGA

hasieran barrez hartu bazuten ere, berehala azaleratu zen egoeraren ondorio nagusia: "Orain zer egingo dugu guk umeekin?". Eta jarraian "etxeko logistikari begira" jarri zirela dio, prentsan irakurritako prebentzio neurri orokorreaz gain irizpiderik jaso ez zuten arren.

Hurrengo egunetan, Arabako hiriburuko parkeak eta plazak aiton-amonekin jolasten duten umeekin bete dira, baina ez da familia honen kasua, bikotekidearen

PARKEAK ETA PLAZAK
AITON-AMONEKIN
JOLASTEN DUTEN
UMEEKIN BETE DIRA

gurasoak Gasteiztik kanpo bizi direlako. Izan ere, klaserik gabeko umeen zaintza kezka nagusietako bat bilakatu da: "Eskerrak nire bikotea bajan dagoen; bestela ez dakit nola egingo genukeen".

Hala ere, Ixi eta Eñauten kasua salbuespena da, eta umeak zaintzeko aukera izango dute ezohiko egoera bati esker.

Martxoaren 24ra bitartean zer gertatuko ote den ziurgabetasunez bizi du ama honek: "Bajoi momentuak ere izan ditut... hainbesteko mobida beharrezkoa da?". Baina langileentzako zein familientzako kalteak ikusita, "gauza potolo" baten aurrean gaudela deritzo Mateosek: "Ez da txantxa bat".

"Badakizu koronabirusa hortik dagoela, baina ez duzu espero"

KETXU BEDIALAUNETA BASTIDAKO IKASTOLAKO ZUZENDARIA

Bastidako bi ikastetxeetan eskolak bertan behera geratu dira –asteazkenean Arabako Errioxa osora zabaldu da erabakia–, ikasleetako baten gertukoak koronabirusa zuelako. Egun 158 ikasle, 13 irakasle eta beste hainbeste langile dituen Bastida Ikastolako zuzendari Ketxu Bedialaunetak (Ondarroa, 1961) egun hauetan bizitakoa kontatu du.

Nola izan zenuten itxieraren berri?

Igande arratsaldean Ikastolen Elkarteko zuzendariak deitu zidan Hezkuntza Sailaren deia jasoko nuela esanez. Handik ordubetera jaso nuen deia: astelehenean Bastidako ikastola eta eskola publikoa itxi beharko genituen.

Zer egin zenuten orduan?

Nik gurasoak emailaz abisatzen nituen bitartean, ikastolako gerenteak garraio enpresak eta jantokiko sukaldariak informatu zituen. Gero irakasle ez diren langileak abisatu genituen... Zorarena izan zen. Badakizu koronabirusa hortik badagoela, baina ez duzu espero.

Astelehen goiza iritsi zen eta...

Klastroan elkartu ginen, nola lan egingo genuen erabakitzeko, baina ni apenas egon nintzen, hedabideekin nengoelako. Ondoren, Arabako leku zehatz batzuetako eta Gasteizko ikastetxeetako zuzendariak bilera batera deitu gintuen Hezkuntza Sailak. Bertan eman ziguten hartutako



E. UGARTE

erabakiaren berri: prebentzio neurriengatik, ez zuten nahi umeak leku itxietan elkartzea.

Zeintzuk dira orduan jaso zenituzten irizpideak?

Hasiera batean zentroak itxi behar zirela zirudien, baina irizpidea eskola jarduera etetea da. Langileak zentrora joan behar gara: irakasleek emailaz lan egiten dute umeekin, eta irakasleak ez direnak, adibidez, eskola garbitzen edo bestelako lanetan. Hala ere, beste prebentzio neurrien artean, denak batera ez elkartzeko irizpidea dugu.

Nola erreakzionatu zenuten Bastidako ikastetxeetan?

Erabakiak lasaitasuna eman zigun. Hasiera batean bazirudien foku guztia hemen zegoela eta gu ginela eskola itxi behar zuten bakarrak, 1.500 biztanle dituen herri txiki batean.

Eta ikastetxea martxan dago...

Hasieran jokoz kanpo harrapatu gintuen, baina asteartetik lasaiago gaude. Erreakzionatu dugu eta

moldatuko gara egoera berri honetara. Irakasle batzuek umeak dituzte, eta bizitzak berrantolatu ahal izateko ordutegi malguak ezarri ditugu. Familien kasuan askoz korapilatsuagoa da, baina ahal duten moduan moldatuko dira. **Zaila al da eguneroko lana aurrera ateratzea?**

Ikasleei etxeko lanak bidaltzen dizkiegu eta hauek zuzentzen ari gara. Dena den, ez da berdina bosgarren mailako ikasleekin edo ume txikiekin lan egitea, eta, gainera, irakaslea zarenean gustatzen zaizuna umeekin egotea da. Ez daukagu ohiturarik horrela lan egiteko.

Eta egoera martxoaren 24rako konpontzen ez bada?

Hurrengo urratsak pentsatzen ari gara, baina oraindik ez dakigu nola erreakzionatuko dugun. Egutero ikusi behar da: ikastetxea zabaltzen duzu baina ez dakizu zer tokatzen zaizun. Ea martxoaren 24rako dena konpontzen den. Hori espero dut.

"Birusa gurekin dago; onartu eta ahulenak babestu behar ditugu"

MATI ITURRALDE MARTINEZ DE LIZARDUI MEDIKUA

Kezkatuta dago Mati Iturralde medikua koronabirusa ez harrapatzeko zabaltzen ari den "histeria kolektiboa" dela eta. Beldurraren aurrean, uste du onartu behar dela birusa gure artean dagoela eta luze egongo dela; lehentasuna adineko pertsonak eta ahulenak babestea izan behar dela azpimarratu du.

Testua eta argazkiak: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute**.

Zuian bizi eta bertan medikua da Mati Iturralde Martinez de Lizardui (Gasteiz, 1958). Aste honetan hitzaldia eman du herrian, koronabirusaren inguruan informazioa emateko eta zabaltzen ari den "histeria kolektiboari" aurre egiteko. Birusari aurre egiteko politikak huts egiten ari direla esan du: "Kutsatuko garela onartu behar dugu, eta indar berezia eta bitartekoak jarri ahulenak babesteko eta zaintzeko". Kezka handia agertu du, bestalde, kolektibo batzuen kontra zabaltzen ari diren mezu xenofoboak direla eta.

Zer dakigu epidemiari buruz?

Gero eta gehiago; eta gehien bat Txinaren ekarpenagatik. Hasieran, batez ere European eta AEBetan, Txinako gobernuak ezarritako neurriak kolokan jarri nahi izan zituzten, *manu militari* egiten omen zirelako, faxismoaren erakusketa zirelako... Eta egia esateko, denborak frogatu du eraginkorrak izan direla, eta sekulako epidemia zegoen herrialde batean kontrolatuta dago. Hori da dakiguna.

Hemen estrategia horrek ez du funtzionatu?

Txinako estrategia hemen ezarri nahi izan dute baina modu *light* batean. Italian eta hemen ere neurri batean, birusa gelditzeko estrategia bat martxan jartzen saiatu dira, baina egia da hemengo kultura soziala eta politikoa ez direla berdinak, indibidualismoak pisu handia duelako, eta da funtzionatzen ari. Gizarte oso desberdinak

gara, eta gure gizartean guztion ongizatea ez da Txinan bezain inportantea; hemen bakoitzak bere burua salbatu nahi du, bere inguru txikia babestu, eta ez dira neurriak jartzen denon onerako. Estrategia horiek hemen martxan jartzen dituztenean ez dute funtzionatzen.

Gai da gure osasun sistema birusa kontrolatzeko?

Osasun krisiaren hasieratik gobernuak planteatu dute sistema publikoa gai dela egoera kontrolatzeko, eta egunez egun demostratzen ari da ez dela gai. Sistema irekiegia da eta ez dago antolatuta egoera honi erantzuteko; beraz, momentu honetan, ospitaleak kolapsatzear daude, eta lehen arretan, berriz, Gasteizko osasun zentro gehienetan ez dago pazienterik. Ikusten da zer desoreka sortu den beldurragatik. Prozesua zein izango den eta zer egingo duzun ondo azaltzen ez baduzu, jendearen erreakzioa negatiboa izango da, zerbitzuak kolapsatzera iritsi arte.

Zer neurri hartu behar dira?

Zaila da esatea, baina orain arte ikusi duguna da birusak eragin handia duela batez ere adineko jendearekin eta ahulekin. Horiek zaindu eta babestu behar dira beste jendearengandik; eta beste guztiok onartu behar dugu aukera dugula kutsatzeko, ez dela gauza larria izango baina ekidin behar dugu pertsona ahul horietara iristea gaixotasunarekin. Bizitza kolektiboa antolatu behar da horren inguruan.

Egokia da ikastetxeak ixteko neurria?



Mati Iturralde familia medikua da, Zuian. E.U.

Ez da eraginkorra; izan daiteke oso zati txiki batean, umeak ez izateko transmisio bidea, baina hartu den neurria kostu ekonomiko gutxien duena da. Umeen gertatzen dena pertsona helduekin gertatzen da, baita ere, eta ez da planteatzen Mercedes edo Michelin ixtea hamabostaldirako, eta agian eraginkorragoa izango zen, inguruan mugitzen delako jende asko. Neurri *light* bat hartu du, beste neurri batzuk hartzea oso oso garestia izango litzatekeelako.

Balorazio ekonomiko bat egon da, beraz.

Hasieratik. Adibidez, Italian isolamenduaren erabakia hartu zutenean izan zen osasun sistema gaindituta zegoelako eta ezin zutelako jende gehiago jaso. Hemen ere bide horretatik goaz. Eusko Jaurlaritzak agerraldia egin zuen egunean

nik espero nuen neurri zorrotzagoak hartuko zituztela, Gasteiz ixtea, eta ez dute egin baina ez dakit mantendu ahal izango duten. Denbora irabaztera eta birusari aurre egitera bideratuta dago guztia. Agian, momentu hori amaitu zaigu eta pentsatu behar dugu nola babestu jende ahula eta jende zaharra; eta beste guztiak onartu behar dugu gure bizitzan egongo dela birus hori, orain eta hurrengo urteetan.

Kezkagarria da zabaltzen ari den beldurra?

Supermerkatuetan gertatzen ari dena, adibidez?

Horrek ez nau horrenbeste kezkatzen, kontsumoa kontsumoa delako. Gehiago kezkatzen nau histeria kolektibo hori noraino irits daiteken.

Beldurrak jendearen bestearekiko jarrera aldatzen du eta individualismoaren eskema batean jartzen du erabat. Bakoitzak bere burua salbatu nahi du, eta hori da kezkatzen nauena une honetan. Egun hauetan, osasungintzan lan egiten dugunok mezu arrazista asko jaso ditugu, etnia ijitoaren kontra, komentario lotsagarriak; eta jarrera hori areagotzen ari da. Individualismoak beldurraren zama handi bat ekartzen du eta hori gurea bezalako gizarte desegituratu batean oso arriskutsua da. Jendea nekatuta dago eta egoerak gaindituta; eta birusa ez harrapatzeko histeria kolektibo horretan sartuta dagoenean etsaiak bilatzen ditu, eta horiek beti izaten dira ahulenak.

Nola aurre egin beldurrari?

Batetik, informazioa exijitzea eta telebistan esaten duten guztia ez sinestea dagokigu. Helduak gara eta jakin behar dugu bereizten, eta halaber jakin ezin dugula izan informazio zehatza uneoro.

Bestetik, ulertu behar dugu ziur aski birusa gurekin egongo dela, kutsatuko garela, eta aldameneko ahulenak zaindu behar ditugu.

Gobernuaren aldetik, zer urrats egin beharko lirateke?

Ondo markatu behar dira lehentasunak eta ahulenak zaindu behar dituzte. Eta bigarrenik, ikusten bada sistemak gainezka egiten duela, ezin bada jaso jende guztia, neurriak hartu beharko dira eta osasun enpresak sozializatu. Adibidez, Gasteizen badago ospitale pribatu bat: zergatik ezin dira momentu batean ohe horiek erabili? Ospitaleetako arreta unitateek dituzten oheak dituzte, eta ezin dira handitu. Beraz, estrategia eraginkorrak antolatu behar dira panorama hori ekiditeko, ohe gehiagorekin, profesional gehiagorekin. Halaber, jendarteari ardura eskatu behar zaio, haien artean zaintzeko, pertsona asko etxean zaindu daitezkeelako. Ospitaleetan protokoloa dago, eta hori jarraitu behar da. ■■■

Informazio lagungarria

Nola kutsatzen da?

OMEk zabaldutako datuak direla eta, tamaina ertaineko tanten bidez transmititzen den gaixotasuna da. Horrek esan nahi du kutsatzea ukitu edo doministiku egiten duen pertsonarengandik metro edo metro eta erdira irits daitekeela.

Behin pertsona bat koronabirusak kutsatzen duenean, sintomak gripearean oso antzekoak izan ohi dira, hau da, eztula, eztarriko mina, amasa hartzeko zailtasuna edo artikulazioetako mina. Kutsatutako pertsonen heriotza-tasa %2 da. Horrek esan nahi du birusa hartzen duten pertsona gehienak sendatu egiten direla.

Nola jakin kutsatuta egon ote naitekeen?

Gaur-gaurkoz, hauxe da gomendioa: gaitzak jotako lurralde batean egon bazara, gaixotasuna transmititzeko arriskua duen gune batean egon bazara eta amas sintomak badituzu, hala nola eztula, sukarra, eztarriko mina edo amasa hartzeko zailtasuna, etxean geratu behar duzu eta Osasun Kontseilura deitu (900 20 30 50).

Maskarak lagungarriak al dira?

Maskarek funtzio bat betetzen dute: birusaren hedapena saihestea. Horregatik, maskara jarri behar duena amas infekzioaren sintomak dituen da. Hala, pertsona bat sintoma horiekin osasun zentroren batera joaten denean maskara jarri behar du, inguruan dauden gainerako pertsonak ez kutsatzeko. Adinekoekin edo immunodeprimituarekin kontaktua duten pertsonen maskarak jartzea ere gomendagarria da.

Edonola ere, amas gaixotasunen bat (koronabirusa ere bai) ez zabaltzeko neurririk eraginkorrena eskuak garbitzea da.

Zenbat denbora irauten du?

Ez dakigu ziur zenbat denbora irauten duen COVID-19 birusak gainazal batean, baina badirudi beste koronabirus batzuek bezala jokatzen duela. Egindako azterketek (COVID-19 birusari buruz eskuragarri dagoen aurretiazko informazioa barne) koronabirusak azalera batean ordu gutxi batzuetatik egun batzuetara arte iraun dezaketela adierazten dute. Eguraldia baldintzen arabera alda daiteke (adibidez, gainazal mota, temperatura edo ingurunearen hezetasuna).

Gainazal bat kutsatuta egon daitekeela uste baduzu, garbitu desinfektatzaile komun batekin, birusa hiltzeko eta zeure burua eta besteak babesteko. Garbitu eskuak alkoholdun desinfektatzaile batekin edo ur eta xaboiarekin. Ez ukitu begiak, ahoa edo sudurra. pixka bat luzatu bahear da



Zeintzuk dira sintomak?

Sintoma ohikoenak eztula, eztarriko mina, sukarra eta aire faltaren sententzioa dira. Larritasun handiagoko kasu batzuk egon daitezke, eta kasu batzuetan infekzioak pneumonia eragin dezake.

Tratamenduari erantzuten ez dioten paziente larrietan, eta, bereziki, aurretik gaixotasunen bat badute, konplikazio larriagoak izan ditzakete, eta hil ere egin daitezke. Kasurik larrienak, normalean, adinekoetan ematen dira, edo beste gaixotasunen bat dutenen artean, hala nola bihotzekoak, birrikak edo immunitate-arazoak.



#gomendioak



Garbitu eskuak sarritan xaboia erabilia eta eskuak ondo igurtzita.



Eztul edo doministiku egitean, estali ahoa eta sudurra ukondoarekin edo zapi batekin.



Eztula edo doministiku egin eta sukarra duten pertsonetatik metro batera egon gutxienez.



Kutsatzeko arrisku gehien aurpegia ikutzean sortzen da. Ez ukitu begiak, sudurra edota ahoa.



Eskuekin ukitu ohi diren tokiak maiztasunez garbitu, etxean zein leku publikoetan.

Iparragirre gurean



TXEMA RAMIREZ DE LA PISCINA

KAZETARIA ETA IKERTZAILEA

Kale artean lasai asko ibiltzea bezalakorik ez dago. Garbi dago. Kale izenei nekez erreparatzen diegu. Lastima. Ez gara jabetzen izen horien atzean, sarritan, izana ere badagoela. Batzuetan, hotsandiko hitzak dira. *Askatasuna*, adibidez. Edota ereserki nazionalen egileak; Jose Maria Iparragirre, esaterako.

Biek ala biek beren kale propioa daukate Gasteizen. Karrika nahiko xume eta arruntak, dena esan behar bada ere. Aurten, gainera, 200 urte beteko dira (abuztuaren 12an) Jose Maria Iparragirre bohemio urretxuarra jaio zela. Denok dakigu Iparragirre abenturazale eta koblakari aparta izateaz gain, gure *Gernikako arbola* kanta nazionalaren egilea ere izan zela.

Jende gutxik daki, ordea, Jose Maria Iparragirrek munduan barna izan zuen fama, neurri handi batean, bi kronista gasteiztarri zor diela eta biek, gainera, kale bana dutela beren omenez gurean. Ricardo Becerro de Bengoa eta Pedro Egañaz ari naiz. Aitor dezadan ni neu ere duela gutxi enteratu naizela horretaz. Joan den azaroan, Antxoka Agirre irakasleak bertsolaritzari buruzko doktorego tesi bikaina defendatu zuen EHUn eta bertan aipatzen da Becerro de Bengoa eta Egañaren lana. Iparragirre gure lehen bertsolari mediatikoa izan zen eta Rikardo Becerro de Bengoa bere kronista ofiziala. Hainbat aldizkaritan argitaratu zituen bere lanak. Rikardo pentsamoldez errepublikarra eta foruzalea izan zen. *El mentirón* eta *Aquello* aldizkariaren sortzaile, baita *La Naturaleza* aldizkari zientifikoaren zuzendaria ere.

Jakin bagenekien Pedro Egaña Arabako ahalduen nagusia izan zela, baita bera ere pentsamoldez liberala eta foruzalea zela, baina inork gutxik zekien Iparragirreraren kontzertuei buruzko kronikak berak argitaratu zituela non eta Madrilgo *La España* izeneko egunkarian. Areago, Egaña, Becerro de Bengoa bezala, politikari eta hizlari trebea izan zen, eta Senatuan bertan diskurtso gogoangarria egin zuen Iparragirreraren figura goraiapatuz.

Badakizue zer egin asteburu honetan: ditzosozko *koronabirus* zaharra alde batera utzi, kalera irten eta erreparatu karriken izenei. Batzuetan sorpresa ederrak topatuko dituzue eta. ■■■

**IPARRAGIRREK
MUNDUAN BARNA IZAN
ZUEN FAMA, NEURRI
HANDI BATEAN, BI
GASTEIZTARRI ZOR DIE**

Ametsak



CIRA CRESPO
HISTORIALARIA

Egin ezazu proba: zure aurrean dagoen pertsonari begiak arretaz begiratzen badizkiozue, irisean irudi txiki baten isla ikusiko duzue, pertsona txiki baten modukoa. Horregatik, begi zati horri euskaraz *ninia* esaten zaio eta latinez *pupila*. Izan ere, hizkuntza askotan irisaren barrukoak "haurtxoa" edo "neska txikia" esan nahi du. Baina ea, zein da besteen begietan ikusten dugun neska txiki hori?

Geure burua, noski. Geure isla. Neska txiki hori gu geu gara.

Hots, besteen begietan gu gaude. Honek guztiak ardura eskatzen du, beste pertsonengan gure zati txiki bat dagoelako. Eta, alderantziz, mendekoak eta behartsuak gara, besteren begietan denok niniak baino ez garelako.

Ildo honetatik, joan den egunean, Marcia Tiburiari egindako elkarrizketa irakurri nuen. Bera brasildarra da, eta, besteak beste, *¿Cómo conversar con un fascista?* (Inter Pares argitaletxea) liburua atera berri du. Han, gaur egungo Brasilgo egoera politikoa aztertzen du eta irtenbide batzuk ere proposatzen ditu. Besteak beste, politika demokratikoak besteenganako jarrera ireki bat ekarri behar duela esaten du, faxismoak proposatzen duenaren justu kontrakoa, alegia. Berez, faxista bat antzematerako orduan ezaugarri garrantzitsu bat da bestea ezagutzeko ageri duen ezintasuna. Izan ere, faxismora ez hurbiltzeko gakoa besteen ezagutza datza. Ikusten duzuen bezala, gaur egungo faxismoaren arazoaren aurrean, Marciak hurreratze humanista proposatzen du, eta, alde horretatik, nik hurbileko sentitzen dut. Gauza askoren sendabidea besteen begietan geure burua bilatzea dela uste dut.

Hala ere, gauzak ez dira hain errazak, hau guztia burutzeko solaskidea behar baituzu. Marciak, adibidez, herrikideekin elkartzea zail dauka, herio-mehatxu batzuk jaso ondoren erbestera joan behar izan duelako bizitzera. Eta, hala, gaur egungo munduaren egoera zakarra laburbil dezakegu. ■■■

**EGUNGO FAXISMOAREN
ARAZOAREN AURREAN,
MARCIAK HURRERATZE
HUMANISTA
PROPOSATZEN DU**



Olarizu auzoko etxebizitza okupatuetako bizilagunei ura moztu izana salatzeko elkarretaratzea egin zuten urrian. IGOR MUÑOZ

Olarizu eta giza eskubideak

JOSE ANGEL CUERDA, JUAN IBARRONDO, FILOMENA ABRANTES, BARTOLOME JIMENEZ, PASCUAL BORJA, LOURDES OÑEDERRA, JESUS PRIETO, ANTONIO DUPLA, IÑIGO ANTEPARA, AMELIA BARQUIN.

Gasteizko herritar agurgarriak. Uneotan ehun pertsona baino gehiago daude Olarizu hiribideko bloke batzuetan, haien artean gazte eta ume dezente, hutsik eta eraisteko prest zeuden udal etxebizitza batzuetan.

Gizakiak ote dira etxe horietan bizi diren pertsonak? Giza eskubideak ote dituzte, menturaz?

Gizakiak balira, geurea bezalako gizarte aurreratu batean, etxebizitza duin baterako eskubidea izango lukete, urarekin eta elektrizitatearekin. Baina ez da horrela. Izan ere, Udalaren erabakiaren ondorioz, ura eta agindarra moztu zaie.

Neguan, Gasteizen, arratsaldeko seietan gaua da jadanik, eta sekulako hotza egiten du. Egongo da hiri honetan esaten duenik pertsona horiek beti oheratu daitezkeela ilundu bezain laster (oherik eta mantarik badute, behintzat), eta arropa jantzita egin dezaketela. Baina kandelarik piztu gabe, noski, sute bat eragin dezaketelako, eta ez dagoelako etxeetan hura itzaltzeko urik. Egongo da esaten duenik pobrezia egoeran dauden pertsonak hotza pasatu behar dutela, eta ilunpean egon. Eta uraren bila

GIZARTE AURRERATU
BATEAN, ETXEBIZITZA DUIN
BATERAKO ESKUBIDEA
IZANGO LUKETE

EGONGO DA HIRI HONETAN
ESATEN DUENIK ONENA
DELA JENDE HORI
AIENATZEA, DESAGERTZEA

joan behar dutela duela mende bat egiten zen bezala.

Egongo da hiri honetan esaten duenik arropa eta baxera garbitzea, janaria prestatzea, etxe barruan berokia kentzea, dutxa hartzea eta seme-alabak iturriko urarekin bainatzea –are gutxiago ur beroarekin– ez dela beharrezkoa, pertsona horietako bat bazara.

Bloke horietan 30 adin txikiko inguru bizi dira. "Haurren Lagun den hiria" izateaz harro dagoen udalerrri batean! Argi dago ez dela haur guztien laguna; ez da, bederen, bloke horietan bizi diren haurrena. Egongo da esaten duenik pobreek ez daukatela haurtzarorako eskubiderik.

Kaleratze mehatxua presente dago uneoro. Egongo da hiri honetan esaten duenik pertsona horiek ez dutela pasatzen estresa edo antsietatea edozein egunetan kalean geratuko direla pentsatzean, nora jo jakin gabe; ez dutela haien egoeragatik sufritzen, ezta



beren seme-alabak sufritzen ikusita ere; ez direla deprimitzen jasaten dituzten bizi-baldintzengatik edo

sentiarazten zaien mespretxuagatik. Egongo da hirian esaten duenik etxebizitza ordaintzeko gai den jendearen osasun fisiko eta mentalak arreta osoa merezi duela, baina Olarizuko blokeetako pertsonen osasun fisiko eta mentalak ez duela batere axola. Ez helduena, ezta haurrena ere.

Egongo da hiri honetan esaten duenik onena dela jende hori aienatzea, desagertzea... jende jatorrak ikus ez dezan, eta lasai asko bizi dadin. Baina hori ez da usu gertatzen...

Gizakiak ote etxe horietan bizi direnak? Giza eskubideak edukiko ote dituzte?

Ikasten ariko al gara, gure gizarte aurreratu honetan, badaudela gizakiak diren

pertsonak (eskubideen jabe), eta beste batzuk gizaki ez direnak (eta, hortaz, eskubiderik gabe bizi behar dutenak)?

Testu honen sinatzaileok pertsona guztien gizatasunean sinesten dugu. Eta uste dugu hori pentsatzen duten Gasteizko herritar asko ordezkatzeko dugula.

Erakundeei ardura eskatzen diegu, eta konponbideak bilatzeko Olarizuko blokeetan bizi diren pertsonen oinarritzko giza-eskubideak bermatzeko. ■■■

BIDALI ZURE GUTUNA:
erredakzioa@alea.eus

Gutunarekin batera, bidali zure izen-abizenak, telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. ALEAK eskubidea izango du gutuna laburtzeko eta baita alea.eus webgunean argitaratzeko ere.

Martxoaren 20an 'Ttap' berritua!



'Gorabeherak'
websailarekin!

ttap
Irakurri, ukitu,
ikus, entzun.

DOAN
Euskarazko aldizkari
digitala, deskargatu
astero zure mugikor
edo tabletan





IRUDITAN

Araba, aldarri feministen bozgorailu

Emakume Langilearen Nazioarteko Egunaren harira, dozenaka ekitaldi eta mobilizazio antolatu zituzten pasa den igandean Arabako emakumezkoek. Ondoko irudietan ikusten denez, borroka feministara batzeko deia zabaldu zen herrialdeko iparraldetik hegoaldera; aldarrikapen bera modu askotan islatu zuten horietan guztietan parte hartu zuten milaka emakumeek: Gasteizen, Agurainen, Kanpezun, Zigoitian eta Arabako Errioxan, esaterako, manifestazioak eta elkarretaratzeak izan ziren.

Argazkiak: ALEA eta ACOA-AKE. ■■■



Bidali zure argazkiak testu labur
batekin: erredakzioa@alea.eus

ERREDAKZIOA TREBIÑU

Duela 22 urte egin zuten Arabara batzeko herri galdeketa Trebiñun. Egun hori gogoratzeko asmoz, ezohiko osoko bilkura egin dute, eta adierazpen instituzionala onartu dute. Halaber, urteurrena ospatzeko, udaletxeko fatxadan, trebiñarren Arabako izaera aldarrikatzen duen kartel berri bat jarri dute zinegotziek.

Ezohiko osoko bilkura horretan, bi adierazpen instituzional aztertu zituzten Trebiñuko zinegotziek. Condado para Todos eta Ciudadanos del Condado taldeek aurkeztutakoa atzera bota zuten gainerako taldeek. Horretan, EAJk Araban anexionatzeko aldarrikapena kontuan hartu ez izana gaitzesten zen, eta jeltzaleek Kongresuan presio gehiago egin ze zuten eskatzen zuten.

Bigarren adierazpena EAJko gobernu taldeak aurkeztu zuen, eta aurrera egin zuen EH Bilduren eta Agrupación Independiente-ren botoekin. Herri galdeketa gogora ekartzen du adierazpenak, eta gaur egun egoera berdin jarraitzen duela adierazten da, "legearen barruan bide ezberdinak bultzatu arren".

Proposamenaren ildotik, eta behin betiko konponbide bat bilatzeko bidean, Trebiñuko Konderriko Udalak "Burgosetik eta Gaztela eta Leonetik bereizketa eta Arabako lurralde historikora eta EAEra anexioa" eskatzeko erabakia hartu du. Horretarako, Udalak elkarrizketa mahaia osatzeko proposamena luzatu du, "gatazkaren konponbidean parte hartu beharko luketen erakundeekin: Gaztela eta Leongo Junta, Jaurilaritza, Burgosko Diputazioa, Arabako Diputazioa, eta Trebiñuko Udala eta Argantzongo Udalak". Halaber, Espainiako Kongresuak ere parte hartzea eskatzen dute.

Arabian sartzeko asmoari tinko

Trebiñuko Udalak Burgosetik banatzeko eskatzen duen adierazpen instituzionala onartu du. Elkarrizketa-mahaia osatu nahi dute, besteak beste, Gaztela eta Leonekin eta Espainiako Gobernuko ordezkariekin.



Arabako izaera aldarrikatzeko kartela jarri dute Trebiñuko udaletxean. MIKEL ARRIBAS



Bilbon agerraldia egin zuen LABek, gertatutakoa salatzeko. LAB

Istripua estaltzea salatu du LABek

Zorroza Gestion de Residuos enpresako zuzendariak agindu zehatzak eman zituela salatu du LAB sindikatuak: zaurituta egon arren, langilea lekuz aldatzea, gertatutakoa estaltzeko.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

Joan den otsailaren 23an, langile bat hil zen Murgako Zorroza Gestion de Residuos SL enpresan, Aiaran: Bassirou Dione zuen ize-na. Egun horretan, langilea, bi lankide eta enpresaren ardura-duna eskailera bat hartu eta tei-latura igo ziren, gerentearen agin-

duak jarraituz. Ez zegokion lan-postu batean eta prebentzio neurririk gabe lanean ari zen Dione, LAB sindikatuak azaldu duenez.

Handik minutu gutxira, teilatuaren zati bat apurtu ondoren erori zen B.D. Han zeuden langi-leek berarengana gerturatu eta

oraindik bizirik zegoela ikusi zu-ten, larriki zaurituta zegoen arren.

LAB sindikatuaren arabera, en-presaren kudeatzaileak behartu egin zituen langile batzuk B.D. mugitzera, bere ohiko lanpostu-ra gerturatzeko eta ondoren, agin-du zehatzak eman zizkien langi-le guztiei: "Badakizue zer esan behar duzuen, ezta? Zintatik ero-ri dela... Zintatik erori dela!".

Horrez gain, langileak erantzule bihurtu nahi dituztela dio LABek: "Langileok biktima gara, ez eran-tzuleak".

Baldintza txarrak

Zorrotza Gestion de Residuos enpresako lan baldintza okerrak nabarmendu ditu sindikatuak istripuaren ondorengoko asteetan: eguneko 10 orduko nahitaezko lanaldiak, babesteko ekipamendu falta, soldata baxuak, lan erritmo oso altuak, fitxatzeko sistemarik ez, instalazioen egoera, presta-kuntza falta lan arriskuen preben-tzioaren arloan eta abar luze bat.

Enpresako gerentziaren partetik, bestalde, hitzeko tratu txarrak egon direla salatu du LABek; lan-gile baten aurkako eraso fisikoa ere gertatu da, sindikatuaren ara-bera.

Aiarako Udalak espedientea ireki zion enpresari istripua baino hilabete batzuk lehenago, "per-tsonen segurtasun eta osasun neurriak zein ingurumenaren babesaren ingurukoak ez bete-tzeagatik". Guztira, hiru arau-hauste pilatu ditu enpresak.



ERROTA
HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Julián de Apraiz, 1
01012 VITORIA-GASTEIZ

"Egoera txarra bizi du lakotak, baina itxaropentsua"

AITOR ESTEBAN KONSTITUZIO ETA ADMINISTRAZIO ZUZENBIDEKO KATEDRADUNA

AEBetako lakota hizkuntza-komunitatearekin aspalditik du harremana Aitor Estebanek, eta horren berri emateko saioa egitekoa zen martxoaren 16an, Oihanederren; hori, baina, atzeratu da, koronabirusagatik.

BEÑAT GARAIO

EAJko bozeramailea izan da urte luzez Aitor Esteban (Bilbo, 1962) Espainiako Kongresuan eta ibilbide horretatik egin da bereziki ezagun Euskal Herri mailan, eta Espainiako Estatuan ere. Politikan murgildu aurretik, baina, Deustuko Unibertsitatean Konstituzio eta Administrazio Zuzenbideko katedraduna izan zen, baina horren aurretik datorkio Jatorrizko herriekiko jakin-mina eta konpromisoa. AEBetako lakota hizkuntza-komunitatearekin du harreman pertsonal gehien eta hizkuntza horren inguruko aurkezpena egitekoa zen martxoaren 16an Gasteizen, Oihaneder Euskararen Etxeak antolatzen duen Hitz Adina Mintzo zikloan. Madrilerako hegazkina hartu aurretik erantzun ditu patxadaz ALEAk bere bigarren pasioari buruz egindako galderak. **Lehenik eta behin, zein da zuk hizkuntzekin duzun harremana?** Nire aitak eraginda izan da. Aita oso gaztetan atera zuten eskolatik, 13 urte zituenean, eta beti nahi izan zuen hizkuntzen inguruan ikasi. Seguruenik hizkuntzalari izango zen. Askok maite zituen hizkuntzak eta etxean bere 200 gramatika liburu ezberdin ditugu ia.

Zaletasuna baino gehiago da niretzako, baina aukerak egin behar dira bizitzan. Denbora izango banu, artxiobotatik ibiliko nintzen eta hizkuntzak ikasten arituko nintzen. Dena dela, hizkuntza askok deitzen dute nire arreta, adibidez, galeserak edo kitxuak berak. **Iparramerikako Jatorrizko herriekin harreman handia duzu. Nondik nora dator harreman hori?** Begira, etxean esaten didate txikitan beti indioekin aritzen nintzela jolasten, jostailuekin. Gure denboran frantsesez ikasten zen, baina ingelesez ikasten hasi nintzen indioei buruz gehiago irakurtzeko. Gero, niretzako dena zabaldu zen internetekin, internet oraindik ezaguna ez zenean. Gutxi maneiatzen nuen, baina beti izan dut lotura hango herri batzuekin: mayekin, indioekin, leinu ezberdinekin,... eta baita antropologo batzuen bitartez ere. Eta horrela, apurka apurka, sare bat egiten duzu eta saiatzen zara gaurkotasan batekin jarraitzen. Eta ez dakit badakizuen, baina Indiar Kulturako eta Estatus Indigenako aukera libreko klaseak eman nituen Deustuko Unibertsitatean, nire proposamenez, eta niretzako horiek ziren klaserik

atseginenak. Hasieran txori arraro bat banintz bezala begiratu ninduten, garai horretan indigenismoa ez zegoelako modan. Baina egia da oso ondo joan zirela, eta gaur egun Euskal Herrian indigenekin lanean ari diren asko klase horietatik irten ziren. **Zein izan da zure harremana azken urte hauetan zure jatorrizko herrietako lagunekin?** Lehen bi edo hiru urtean behin joaten nintzen, baina azkenaldian lanpetuta nabil eta denbora bat pasatu da azkenekoz joan nintzenetik. Baina bai, harremana dut hainbatekin, lakota eta Idahoko iparraldeko nepersekin, yutekin, Alaskako yupik-ekin ere bai... Lagunak ditut, hemen eta han ezagutzen ditudanak, eta harremanetan egoten gara; garrantzitsua da laguntasun hori mantentzea. Adibidez, "ikusi duzu hau albistegietan?", eta lakotak maiz agertu izan dira komunikabideetan. **Gehien ezagutzen duzun hizkuntza da, Hitz Adina Mintzon horri buruz hitz egingo duzu, eta kontaiguzu zein den lakhol'iyapi (lakota) hizkuntzaren egoera.** Txarra, egia esan; baina beste hizkuntzekin konparatuz egoera itxaropentsua da. Esango banizu beste kasu batzuen egoera,



Aitor Esteban, AEBetara egindako bidaian. A. ESTEBAN

adibidez, cheyenne-a, askoz okerrago dago. Leinu txikiak dira eta horrek eragina du. Navajoera hobeto dago, hiztun gehiago dira eta indar handiagoa dute. Gaur egun, esango nuke lakotak 2000 hiztun dituela, hiztun gutxi topatuko dituzu eta gazteen artean ez dago hiztun askorik. Baina esan liteke biziberritzen ari direla hizkuntza eta itxaropentsu nago: batasun minimo bat dagoelako, eta kultura indigenan arazo bat da hau (ondokoak egiten duena ez onartzea); hizkuntza bultzatzeko gogoia dutelako; ortografia bateratu eta hizkuntza materialak prestatzen hasi direlako; beste ikuspuntu batetik lanean ari direlako,...

Amerikako Estatu Batuetan Jatorrizko herri asko daude. Zein da beraien arteko harremana?

Ea, lehenengo eta behin, ohar bat: beti joaten gara gure mentalitatearekin eta saiatzan gara beraien egoera ikusten gure ikuspegiaren arabera. Gu euskaldunak gara nazio bat garelako, baina beraien nazioak sendiaren parte izatearekin du zerikusia. Beraien artean leinutan bereizita daude, baita fisikoki ere, erreserba ezberdinetan bizi baitira. Hala ere, erreserba bakoitzaren barruan ere banaketak daude,

baita arrankura eta ezinikusi batzuk ere. Gero, hori esanda, uste dut inoiz baino kontzientzia gehiago dutela beraien eskubideen inguruan; nahiko arrakastatsuak izan direla epaitegietan izan dituzten auzietan; pausu batzuk eman direla; batzuek ikusi dutela beraien azkena izan daitekeela eta konponbidea jarri daitekeela,...

Nazioarteko Lan Erakundean Herri Indigena eta Tribuei buruzko 169 hitzarmena sinatzearen bultzatzailea izan zinen Espainian. Nolako prozesua izan zen hura?

Indigenen mugimenduen artean gai garrantzitsu bat zen, eta hori zen nazioarte mailan euren eskubideak onartzen zituen testu bakarra. Beraz, funtsezkoa zen gero eta herrialde gehiago batzea hitzarmenera. Hitzarmen horrek konpromiso batzuk hartzea eskatuko zuen eta iparraldeko hainbat herrialdek hitzarmen hori sinatu bazuten, Espainiak zergatik ez? Lehenik eta behin, Kongresuan aurkeztu nuen ekimena, eta botoak lortu behar nituen aurrera ateratzeko. Orduan, nire betiko lana bezala izan zen: jendea konbentzitzea. Hau Zapateroren garaian izan zen eta orain ez naiz gogoratzen nortzuk esan zuten ezetz; uste dut Alderdi Popularra zegoela

kontra, eta sozialisten artean ere zalantzak zeudela, baina lobby lanarekin eta GKE batzuen laguntzarekin azkenean lortu genuen. Egia esan, harro nago hau aurrera atera zelako eta modu zuzenean lagundu nuelako indigenen eskubideen aldeko ekimen honetan.

Andres Manuel Lopez Obradorrek duela urtebete Espainiari barkamena eskatzeko galdegina zion, Amerikan herri indigenei eragindako kaltearengatik. Zu baieztapen horren alde azaldu zinen. Zerk bultzatu zintuen adierazpen horiek egitera? Sostengua izan zenuen politika munduan?

Nik galdera bati erantzun nion elkarriketa batean. Nahiko eszeptikoa naiz gauza batzuekin, adibidez, "hau historikoa da" esaldiarekin: geroak esango du historikoa den edo ez. Beste gauza barkamena eskatzearena da. Barkamena eskatzeko arrazoiak egon ziren? Bai, izugarrizko basakeriak egin dira, eta ez bakarrik indiarrei. Hala ere, indioak garbi-garbiak eta baketsuak ziren? Ez, beraien lurra zen eta eskubideak zituzten, baina herri batzuk inperioekin aliatu ziren beste herri indigena batzuk azpiratzeko. Konplikatuak dira kontu hauek, garai horretako mentalitatea zen. Mexikoko Estatuak, hala ere, ia Espainiak baino kalte handiagoa egin zien indigenei eta ez dute barkamenik eskatu. Mentalitate inperialista horren oinordekoak sentitu ziren eta izugarrizko basakeriak egin dituzte geroztik. Barkamena eskatzeko Latinoamerikako estatu gehienek dituzte nahikoa arrazoi, baina itxaropentsu nago beste ikuspegi bat garatzen ari delako. ■■■

Schommerren begirada

Alberto Schommer argazkilari gasteiztarrek 1969. urtetik 2000. urtera egindako hiru serietako 78 erretratu bildu dituzte Amerika aretoan; maiatzaren 17ra arte egongo da erakusketa ikusgai.



Maiatzaren 17ra arte izango da erakusketa Amerika aretoan. AFA

ERREDAKZIOA

Alberto Schommer argazkilariak 1969 eta 2000 urteen artean egindako erretratuen arteko sorta bat prestatu du Gasteizko Amerika aretoak. *Schommer. Garaikideak*. erakusketa maiatzaren 17ra arte ikusi ahal izango da.

Kronika bisuala balitz bezala, aukeratutako argazkiek XX. mendeko kulturaren murgildu eta ibilbide bisuala egitera gonbidatzen dute ikuslea, izen propioetatik abiatuta:

zinemako, literaturako, musikako, antzerkiko, dantzako eta abarretako aurpegiak. "Erakusketa Schommerren lanik onenetako bati buruzkoa da: erretratuak. Berrogei urtetan zehar jorratu zuen genero hori. Erretratuetak asko komunikabideetan argitaratu ziren eta boterea, ekonomia eta kultura islatu zituzten, eta gure herrialdeko duela gutxiko historiaren galeria ikonografiko aparta osatu zuten", azaldu du aurkezpenean Ana del Val kultura diputatuak.

Alberto Schommer argazkilaria 1982an jaio zen Gasteizen. Haren aitak – hiriburuan bizi zen mediku alemaniar bat– argazkilaritza estudio bat izan zuen 40ko hamarkadan, eta, hain zuzen, haren bidez ezagutu zuen artea Schommerrek. Haren ibilbide emankorrak eragin nabarmena izan zuen bere belaunaldiko argazkilari askorengan eta hasi berriak ziren gazte ugarirengan. Erretratuen maisua eta argazkilaritza lengoaiaren berritzailea izan zen. ■

Antzerki zurrunbiloa, bueltan

Zurrunbilo arte eszenikoen jaialdiaren bosgarren edizioak, besteak beste, Kamikaz Kolektiboa, Formol Laborategia, Tripak edota Bapatean Zirkoren lanak eskainiko ditu, apirilaren 3tik 5era.

ERREDAKZIOA

Sei antzezlanek osatuko dute bosgarren Zurrunbilo jaialdia, eta horiekin batera hausnarketarako topaketa bat ere izango da aurten. "Jaialdi honen helburua bikoitza da: euskaraz lan egitearen aldeko apustua egiten duten artista eta konpainiei laguntzea, eta hauen sorkuntzak ohiko ikusleei zein, inoiz parte hartu ez duten arren, horretarako jakin-mina duten pertsonen hurbiltzea", adierazi dute proiektuaren sustatzaile Baratz aretoaren arduradunek.

Baratza aretoak, jaialdiaren egoitza nagusi gisa, Maite Aizpurua eta Kamikaz Kolektiboaren sorkuntzak hartuko ditu apirilaren 3an, 20:00etatik: *Erresistentzia arazo fisiko bat da* eta *Panpina*, hurrenez hurren. Larunbatean, apirilak 4, Formol Laborategiaren *Maketa* eta Tripak kolektiboaren *Urruna* eskainiko ditu aretoak, 20:00etan. Amaitzeko, igandean, apirilak 5, 19:00etan, Olatz Gorrotxategik *43°13'44"N* izeneko antzerki dokumentala



Apirilaren 3an aurkeztuko dute 'Panpina' lana Baratzan. KAMIKAZ KOLEKTIBOA

eramango du Baratzako tauletara.

Baina proposamen horietaz gain, beste bi gunetara ere iritsiko da aurtengo Zurrunbilo jaialdia. Horietako bat Oihaneder Euskararen Etxea izango da, *Euskal Arte Eszenikoen Lengoiak eta Hizkuntzak* izenburupean, euskal sorkuntza eszenikoan hizkuntzak eta lengoiak erabiltzeari buruz mintzatuko den topaketa, kulturgintzako

profesionalei eta interesatutako pertsonen zuzendutakoa. Beste gunea Legutio izango da: apirilaren 5ean, 12:00etan, Bapatean Zirko konpainiak *Adabaki* ikuskizuna aurkeztuko die bertako familiei.

Ikuskizun guztietarako sarrerak salgai daude, eta topaketan parte hartzeko izen-ematea ere zabalik dago; sarrera libre da -aldez aurretiko izen-ematearekin- aforoa bete arte. ■



Parral
taberna

menu begetarianoa eta gosariak
asteazken zehar - asteburuetan razioak
astearteko aktibazio kulturalak

PARRALTABERNA@GMAIL.COM

SAN FRANCISCO XABIER KANTOIA 4

TLF 946276453 GASTEIZ-ARABAKI

Kuartangoko harrien zidorra

Kuartangoko trikuharriena oso ibilbide erraza da; Katadianon kokatutako lau tumulu ezagutzeko parada ematen du, eta Badaia mendilerroaren mendebaldeko isurialdearen bidez gozatzeko.

TESTUA ESTITXU UGARTE L.Z. DE ARKAUTE
ARGAZKIAK: PHOT.OK

Kuartangon, Anda eta Katadiano artean, historiaurrea eta Erdi Aroa eskutik lotuta doaz, eta bertako harrobiak markatu zuen hein handi batean ingurune osoaren garapena. Bertan daude Arabako 72 trikuharrietako lau: San Sebastian hegoa eta iparra, eta Gurpide hegoa eta iparra. Egitura megalitiko hauek ezagutu nahi dituenak Andatik abiatu eta lau kilometroko ibilbide erraz bat eginez hurbil daiteke.

Bide batez, Anda eta Katadiano artean dagoen Marubaiako San Roke zubira ere joan daiteke. Andatik Sendadianoko norabidean dago, Katadianoko lurretan, eta Erdi Aroko galtzada baten parte izan da zubia; merkatariek eta bidaiariek itsasorantz zeramatzaten merkantziak garraiatzeko erabili ohi zuten, eta XVIII. mendean garrantzi handikoa izan zen Araban. Garai hartan hirurogei biztanle zituen Katadianok, baina une hartatik aurrera populazio galera hasi zen, eta gaur egun bi bizilagun soilik ditu erroldan.

Anda herrian bertan ere badago beste zubi bat, ikusgarria. Erdi-puntuko bost begi eta harrizko gurutze bat ditu goialdean, eta herriko harrobiko harriarekin eraikia dago. Izan ere, basoen

aberastasunaz gain, Anda ezaguna da kareharri beltzeko harrobiak dituelako. Harri oso handiak atera zitezkeelako erabiltzen ziren harrobi hauek.

Hala, Gasteizko San Pedro elizan dagoen mahai bat marmol horrekin egina dago, eta harri berezi horren aztarnak bailarako eliza askotan eta Erdi Aroko hilobien estalkietan

ANDAKO HARRI BELTZA URRUTIKO LEKUETAN AURKITU DAITEKE, ESCORIALEN KASU

daude. Harri beltz hau urrutiko beste leku batzuetan ere aurki daiteke, Errioxako Santo Domingo de la Calzadako San Frantzisko komentuan, adibidez. Komentu horretan, Andako 1.500 harri beltz erabili ziren, eta Felipe II.aren garaian enkargatuak izan ziren. Harri hau bera Escorialeko (Madril, Espainia) errege hilobietarako erabili zuten.

Egiturak babestu dituzte

Anda inguruan harrobi garrantzitsuak egon zirela frogatzen dute, baita ere, Kuartangoko trikuharriek. Iragan urteko urrian egon ziren azken aldiz arkeologoak Katadianoko trikuharriak induskatzen. XIX. mendetik ezagunak baldin badira ere,

gutxi ikertu dira, eta gainera azken urteetan ezezagunek inguruak arpilatu dituzte eta hainbat material desagertu dira. Hartara, egitura megalitikoak inguratzeko hesiak jarri dituzte, eta modu horretan ere inguruan dabilen ganadutik babestu dira trikuharriak.

Kuartangoko egitura megalitikorik handiena El Montecillo izenarekin ezagutzen den San Sebastian trikuharria da, eta hori da hain zuzen ere Ondare Babesa enpresako arkeologoek azken bi urteetan aztertu dutena. Tumulu handienak 3,5 metroko altuera eta 40 metroko diametroa ditu; orain dela 5.200 urte eraiki zuten, eta 2.000 urtez erabili zuten jendea bertan hobiratzeko.

Ehunka gizakiren hezurrak, gazezurak, zeramikak, silexa eta metala aurkitu zituzten bertan 2018. urtean. Halaber, iaz, ganbarara sartzeko korridorea aurkitzeko lan egin zuten. Alta, ia hiru metroko sakonera induskatu eta gero, alboko lauza bat soilik aurkitu zuten, baina beste bat falta da. Halaber, arkeologoek ikusi dute iparraldeko eta hegoaldeko tumuluaren paretak erabat desberdinak direla: "Zalantza gehiago ditugu orain hasieran baino", esan dute. Hortaz, trikuharria induskatzen jarraitu beharko dute aurrerantzean, tumuluaren garapen historikoa ezagutu nahi izanez gero. ■



Trikuharrien ibilbidea

Kuadrilla: Añana.

Udalerria: Kuartango.

Luzera: 4,2 km (Anda-Katadianoko trikuharriak-Marubai-Anda).


Bitxikeriak: Giza arrasto ugari aurkitu dituzte Kuartangoko trikuharrietan, baita trepanazio zantzuak dituen garezur bat ere.

Nor gehiago?

URKIDE IKASTETXEA - LH 6C

Asmatu nor den bakoitza
ematen dizugun
deskribapenaren arabera.

Mikel Joseba baina askoz altuagoa da.



Maitane Lorea baino argalagoa da.



Bata bestea baino gazteagoa da.



BAKARRIZKETAK



ANTZEZLANAK



FAMILIARRAK

EKOIZPENAK

MANAGEMENT



www.ttipia.eus

TTiPiA

ZOZKETAK

PARTE HARTU www.alea.eus/zozketak

Irabazleak:

Goizargi Gospel Choir kontzerturako sarrera bat: Susana Egia Albeniz eta Maria Díaz de Lezana Merino.



ANDONI CANELLADA/FOKU

Amets Arzallusen 'Miñan' liburua Bi liburu

Martxoaren 25ean, Amets Arzallusek Oihaneder Euskararen Etxean bere azken liburua aurkeztuko du: *Miñan*. ALEAk bi liburu zozkatuko ditu. Parte hartu martxoaren 24a baino lehen; martxoaren 27ko ALEAn argitaratuko ditugu irabazleen izenak.



Gorbeia zinemarako sarrerak Sarrera bikoitza

Gorbeia zinemetan, edozein pelikula ikusteko sarrera bikoitz bat zozkatzen du ALEAk. Parte hartu martxoaren 24a baino lehen; martxoaren 27ko ALEAn publikatuko dugu irabazlearen izena.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).

alea.eus/harpidetzak/



AGENDA

Martxoaren 13tik 19ra

Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak diruz lagundua.

Euskararen agenda

MUSIKA

GASTEIZ Su Ta Gar

Ostirala 13, 21:30ean, Urban Rock Concept aretoan.

GASTEIZ Xabi Bandini

Grises taldearekin batera.
Asteazkena 18, 21:30ean, Jimmy Jazen.

BERTSOLARITZA

AMURRIO Kuadrilla Artekoa

Kuadrilla arteko txapelketaren hirugarren finalurrekoa. Aramaio eta Gasteizko taldeak arituko dira.
Larunbata 14, 19:00etan, kultur etxean.

GASTEIZ Bertsokatu Txapelketa

Unai Anda, Bittor Altube, Aroa Arrizubieta eta Eder Iturralde bertsolariekin.
Asteazkena 18, 20:00etan, Aranba tabernan.

HAURRAK

GASTEIZ Eskulan saioa

Panpinak egiteko saioa, ludoklub txiki zikloaren barruan. Galtzerdi eta bolatxoekin. 6-10 urte.
Ostirala 13, 17:30ean, Abetxukuko gizarte etxean.

GASTEIZ Eskulan saioa

Kirikiño dibertigarriak egiteko eskulan saioa. 4-8 urte bitarteko umeak.
Ostirala 13, 19:30ean, Zabalganeko gizarte etxean.



PIRRITX, PORROTX ETA MARIMOTOTS

KANPEZU Pirritx, Porrotx eta Marimotots

'Bizi dantza' ikuskizuna
Igandea 15, 12:00etan, kiroldegian.

GASTEIZ 'Úniko' antzerkia

Iñaki Rikartek zuzenduta. Ainara Unanue, Aitor de Kintana eta Maite Bayon antzezleekin. 6 urtetik aurrera.
Igandea 15, 12:30ean, Principalen.

GASTEIZ Potx magoa

Magia saio dibertigarria, Potx magoarekin. 5-10 urte bitartean.
Astelehena 16, 18:00etan, Ariznabarreko gizarte etxean.

DANTZA

GASTEIZ Ilunabarrean dantzan

Balfolka eta euskal dantzen plaza. Patxi Monteroren eskutik.
Igandea 15, 19:00etan, Oihaneder Euskararen Etxera.

HITZALDIA

GASTEIZ 'Lakota'

Hizkuntza gutxituak ezagutzeko zikloaren barruan. Aitor Estebanen eskutik, lakotaren inguruko hitzaldia.
Astelehena 16, 19:30ean, Oihaneder Euskararen Etxean.

BESTELAKOAK

GASTEIZ GEUrekin mendira

GEUrekin mendira taldeko lagunek Pititurrira irteera antolatuta dute.
Igandea 15, 08:30ean, Mendizorrotzeko aparkalekutik.

GASTEIZ Bisitaldi gidatua

'Zeru bat, hamaika bide' erakusketa

ezagutzeko bisitaldi gidatua. Aurretik izena eman behar da.
Asteazkena 18, 18:30ean, Artiumen.

Beste batzuk

ANTZERKIA

GASTEIZ 'Los hijos'

Adriana Ozores, Susi Sanchez eta Joaquin Climent aktoreekin. David Serranok zuzenduta.
Ostirala 13, 20:30ean, Principal antzokian.

MUSIKA

GASTEIZ David Palomar

XXI. Mendeko Flamenkoa zikloaren barruan.
Larunbata 14, 20:30ean, Jesus Ibañez de Matauko antzokian.

BESTELAKOAK

AMURRIO Urrezko Guk saria

Amurrioko Txirrindulari Elkarteari saria, 50. urte bete dituenean.
Larunbata 14, 19:00etan, Amurrio antzokian.

GASTEIZ 'Berrasmatu'

Jarduera ekonomikoetara eta haien etorkizunari buruzko foroa.
Astelehena 16, 18:00etan, Simone de Beauvoir elkartearen etxean.

Euskararen Agendako hitzordu guztiak ikusteko:

alea.eus/agenda



ATE IREKIAK
UNIBERTSITATE GRADUAK
2020/2021 ikasturtea

LEARNING FROM REALITY

INGENIARITZA

GOIERRI MARTXOAK 26
OSTEGUNA 17:30
ORONA IDEO APIRILAK 2
OSTEGUNA 17:30
BILBO MAIATZAK 6
ASTEAZKENA 18:00
ARRASATE MAIATZAK 21
OSTEGUNA 17:30

EKINTZAILERITZA

BILBO MARTXOAK 28
LARUNBATA 11:00
OÑATI MARTXOAK 28
LARUNBATA 11:00
BIDASOA APIRILAK 2
OSTEGUNA 18:00

ENPRESA KUDEAKETA

BILBO MARTXOAK 26
OSTEGUNA 18:00
OÑATI MARTXOAK 28
LARUNBATA 11:00
BIDASOA APIRILAK 2
OSTEGUNA 18:00

HEZKUNTZA

ESKORIALTZA APIRILAK 25
LARUNBATA 11:00

KOMUNIKAZIOA

ARETXABALETAK APIRILAK 25
LARUNBATA 11:00

HUMANITATEAK

BILBO APIRILAK 23
OSTEGUNA 18:00

GASTRONOMIA

— Basque Culinary Center
DONOSTIA MARTXOAK 28
LARUNBATA 10:30

Etorriko zarela jakinarazli!
www.mondragon.edu/prest



MARTXOA

Os. 13 **TRAVELLIN' BROTHERS**
+ MISSISSIPPI QUEEN & THE WET DOGS

Lr. 14 **OBÚS**

Ig. 15 **DR. QUEEN**

Az. 18 **XABI BANDINI + GRISES**

Ot. 19 **GOIZARGI GOSPEL CHOIR**

WWW.JIMMYJAZZGASTEIZ.COM

Gasteizen

Bai

MERKATARITZARI, OSTALARITZARI, ZERBITZUEI, EUSKARARI

Bai aitortza da,
konpromisoa.

Bai da laguna, bezeroa
hartzen dugun modua.

Bai bizitza ikusteko
modua ere bada.

Bai keinu bat da.

#gasteizenbai

PARTE HARTU 'ZURE KEINUAK HIRIA ABERASTEN DU'

Igo zure argazkia bai keinua eginez **Instagramera**
#gasteizenbai traolarekin.
50 euroko erosketa-bonoak zozketatuko ditugu.

Egitaraua

APIRILAK 3, OSTIRALA
Hiriko ostalaritza, zerbitzu eta
merkataritzako hiru negoziari
aitortza.
Erdigunean. 18:30ean.

MAIATZAK 5, ASTEARTEA
Sare sozialetako lehiaketaren
sari banaketa.
Oihanederren.

gasteizenbai.eus